



## OÑATIKO UDALA

Telefonoa: 78 04 11

Fax: 78 30 69

**20560 OÑATI**

OÑATIKO UDALA	
Jardukina Dena	
2012 URT 24	
156	

BILDU Udal Taldeak eta E.A.J.-P.N.V. Udal Taldeak ondorengo mozioa aurkezten dio Udalbatzari:

Udal honek bat egiten du Gipuzkoako Batzar Nagusiek lapurtutako haurren auziari buruzko laguntza-eskaerari eta lankidetzari buruzko Erankunde-adierazpenarekin.

Oñatiko BILDU Udal taldea

Oñatiko E.A.J. Udal taldea

Oñatin 2012ko urtarrilaren 24an

Euskal Autonomia Erkidegoan 50eko hamarkadatik 90eko hamarkadara bitartean administrazio-irregularitasun batzuk izan zirela-eta, jaioberrien bidegabeko jabetzeen edo adopzio irregularren susmoa dago.

Gipuzkoa kaltetu gehien dituen lurraldea da, eta ustezko trama Gipuzkoako 20 ospitale zeudela susmatzen da. Hori dela-eta, Gipuzkoako Batzar Nagusiek kaltetuen elkarte batzuk gonbidatu zituzten, argudioak eta kezak azal zituzaten, 2011ko irailaren 26an, Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean.

Batzorde hartan, SOS Bebés Robados-Euskadi eta ANADIR elkarteetako ordezkariak izan ziren. Ikertzen ari diren zenbait kasuren egoera azaldu zuten, eta dokumentazioa banatu zuten; eta Batzar Nagusiei dituzten helburuetan laguntzeko eskatu zieten.

Jaioberrien lapurreten balizko auzian azken egunotan hainbat gertakari izan dira, hala nola gorpuak hobitik ateratzea eta Gipuzkoako ospitale eta kliniketako ikerketak. Hori kontua izanda, Gipuzkoako Batzar Nagusiek erakunde-adierazpen hau egin dute.

#### **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ERAKUNDE-ADIERAZPENA, LAPURTUTAKO HAURREN AUZIARI BURUZKO LAGUNTZA-ESKAERARI ETA LANKIDETZARI BURUZKOA**

Erakunde-komunikatu honen bidez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek elkartasun osoa adierazten diete jaioberrien lapurreten eta adopzio ilegaleen kasuetako familiei.

Kaltetuek aldarrikatzen duten egia jakiteko eskubideari dagokionez, alegia, senitartekoen desagertutako norakoaren berri izateko eskubideari dagokionez, Gipuzkoako Batzar Nagusiek uste dute agintariak eskubide hori bermatzeko obligazio politikoa dutela, zehazki, eskumena duten tokiko, lurraldeko, erkidegoko nahiz estatuko agintariak.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek euskal erakunde guztiei eskatzen diete, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete behar diren eta haien esku dauden neurri guztiak hartzeko aipatutako elkarteek eskatzen duten egia-eskubidea bermatzeko.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote, beste neurri batzuen artean, kaltetuentzako aholkularitza-zerbitzu bat sortzeko.

Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean hasi dituzten lanekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek, harik eta egitateak argitu arte.

Entre los años 50 y hasta los 90, en la Comunidad Autónoma del País Vasco se han dado irregularidades administrativas que hacen sospechar sobre casos de apropiación indebida de niños recién nacidos o adopciones irregulares.

Teniendo en cuenta que el territorio con mayor número de afectados es Gipuzkoa, y que la supuesta trama podría englobar a 20 hospitales del territorio, las Juntas Generales de Gipuzkoa invitaron, a través de la Comisión de Políticas de Igualdad, Derechos Humanos y Memoria Histórica a diferentes asociaciones afectadas en este caso a exponer sus argumentos y preocupaciones ante dicha comisión el pasado 26 de septiembre de 2011.

En ella, los delegados de las asociaciones SOS bebés robados Euskadi y ANADIR declararon y entregaron diversa documentación a cerca del estado de las investigaciones sobre diferentes casos que estaban llevando a cabo y pidieron la colaboración de esta institución en su causa.

Dados los últimos hechos acontecidos en esta supuesta trama de robo de bebés, como la exhumación de tumbas e investigaciones en hospitales y clínicas de Gipuzkoa, las Juntas Generales de Gipuzkoa emiten la siguiente

#### **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE LAS JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA, EN RELACIÓN CON LA PETICIÓN DE AYUDA Y COLABORACIÓN EN LA PRESUNTA TRAMA DE BEBÉS ROBADOS**

Las Juntas Generales de Gipuzkoa, mediante este comunicado institucional, muestran su total solidaridad con las familias afectadas por el robo y adopción ilegal de recién nacidos.


Las Juntas Generales de Gipuzkoa entienden que garantizar el derecho a la verdad exigida por los afectados, es decir, el derecho a ser informados del destino de los familiares desaparecidos, es una obligación política de las autoridades competentes a nivel, local, territorial y autonómico, así como estatal.

Las Juntas Generales de Gipuzkoa piden a todas las instituciones vascas, en especial a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco, que adopten cuantas medidas sean necesarias y estén a su alcance para garantizar el derecho a la verdad exigido por las asociaciones anteriormente citadas.

Las Juntas Generales de Gipuzkoa solicitan a la Diputación Foral de Gipuzkoa que, entre otras posibles medidas, cree un servicio de asesoría de atención al colectivo afectado.

Las Juntas Generales de Gipuzkoa se comprometen a continuar con los trabajos iniciados en la Comisión de Políticas de Igualdad, Derechos Humanos y Memoria Histórica hasta la clarificación de los hechos.

Donostian, 2012ko urtarrilaren 17an



En Donostia-San Sebastian, a 17 de enero de 2012